

ASIGNATURA / IRAKASGAIA: Euskal Hizkuntza eta Literatura (A eredu)

Hautatu proposatutako aukera bat, A edo B

A Aukera

Boluntarioa al zara? Zein da zure kausa?

- Denok gara solidarioak edo ia denok, behintzat. Galdetzen badigute, besteei laguntzeko prest gaudela esaten dugu normalean, ezta? Eta hori esaten dugu nahiz eta gero gauza handirik ez egin. Jarrera bat da, bizitzeko era bat, ingurukoei laguntzeko sentitzen dugun behar hori. Eta boluntariotza? Boluntarioen lanaren bidez, elkartasuna praktikan jartzen dugu, era antolatu batean, erakunde baten baitan eta modu jarraituan. 1
- Boluntario izan nahi badugu, hainbat gauza hartu behar ditugu kontuan: zenbat denbora eskainiko diogu? Eta zein alorretan lagundu nahi dugu? Ondoren, inguruko elkarteren batera joan gaitezke informazio bila. Guk horixe egin dugu, eta urte luzez boluntarioen elkarte batean egin duen lanaz hitz egin digu Miren Gurrutxagak. 5
- Boluntario izan nahi duenak horretarako denbora izan behar du. "Erretiratuak edo etxekoandreak dira boluntariorik egonkorrenak. Haien bizitza antolatuta dute, eta horrek asko laguntzen die eskatutakoa egin ahal izateko". Horiek helduak dira, baina gazteak ere hurbiltzen dira gure elkartera: "Esperientzia berriak izan nahi dituzte, ikasi edo zerbait berria probatu. Hala ere, horien egonkortasuna konplexuagoa da". 10
- Garai batean, boluntario batek hamar edo hamabost urtez laguntzen zuen elkarte berean. Gaur egun, ordea, egoera oso bestelakoa da. "Ez da hobeak edo okerragoak garelako. Orain arlo profesionalean edo pertsonalean ez dugu egonkortasunik. Lehen errazagoa zen hori lortzea", azaldu digu Mirenek. Bakoitzak bere motibazioa aurkitu behar du eta bere interesak kontuan hartu beharko ditu; adibidez, adineko pertsonak, eskolatu gabeko umeak, immigrazioa, adin txikikoak, mendekotasunak, dibertsitate funtzionala, gaixotasunak, bazterkeria egoeran dauden pertsonak, lankidetzeta eta garapena, babes zibila eta larrialdiak, kirola, ingurumena... Mirenen ustez: "Zerbait egin nahi duenak bere txokoa topatuko du, zeren eta laguntzeko aukera asko baitaude". 15
- Eta zu, boluntarioa zara? Elkartasuna gogoko duzu? Zein da zure kausa eta zergatik? Zure ustez, guztiok gara solidarioak? Denon artean elkartasunari ateak zabaldu behar dizkiogu, behar-beharrezkoa delako. 20

Ainara Loiarde, *Ikasbil* aldizkari digitala, 2017-07-10, <http://www.ikasbil.eus> (EGOKITUA)**GALDERAK (OHARRA: Parentesi arteko zenbakiak zein lerrotan dagoen adierazten du)**

- 1.- Eman hitz hauen kasua eta numeroa: *lanaren* (3), *gazteak* (10), *elkartera* (10), *egoeran* (17), *elkartasunari* (20). (1 puntu)
- 2.- Testuingurua kontuan hartuz hitz hauen sinonimoa eman: *hitz egin* (7), *adibidez* (15), *umeak* (16), *gogoko* (19), *zabaldu* (20). (1 puntu)
- 3.- Berridatzi esaldi hauek (1 puntu):
 - "nahiz eta gero gauza handirik ez egin" (2) (_____ arren).
 - "elkarte batean egin duen lanaz" (7) (_____ ... -dako _____).
 - "eskatutakoa egin ahal izateko" (9-10) (_____ ... -(e)na _____).
 - "zeren eta laguntzeko aukera asko baitaude" (18) (zeren eta _____ -n).
 - "behar-beharrezkoa delako" (20) (_____ bait-....).
4. Testuaren ulermena: Nortzuk dira boluntario lanetan iraunkorrenak, denbora gehien aritzen direnak? (1 puntu)
5. Testuaren ulermena: Testuaren arabera orain lehen baino okerragoak al gara? Azaldu zure erantzuna. (1 puntu)
6. Testuaren ulermena: Boluntario bakoitzaren interesei eta motibazioei begira, zein arlotan lan egin dezake boluntario izan nahi duen batek? (1 puntu)
7. Idatzi testuari edota gaiari buruz gutxienez 150 hitz. (4 puntu).

Zein sare sozial erabiltzen duzu?

Nork ez du Whatsapp bidez mezurik bidaltzen? Eta nork ez du Facebooken argazkirik partekatzen? Eta Instagramen argazki bat zintzilikatzea, ez al dugu askok egiten? Gaur egun, askok erabiltzen ditugu sare sozialak, baina, sinesgaitza iruditzen bazaigu ere, ez dira beti hor egon. Noiz sortu ziren?

1995. urtearen inguruan, hainbat sare sozial asmatu zituzten. Horien helburua pertsonen arteko harreman digitalak sustatzea zen. Hala ere, garai hartako sarerik famatuena 1999. urtean iritsi zen: Microsoft Messenger. Berehalako mezularitza ahalbidetzen zuen, eta jende-multzo handi batek erabili zuen urte askoan. Ordutik asko eta asko asmatu dituzte, baina inork ez du lortu 2004. urtean sortu zen Facebookek adinako jarraitzailekopururik. Hasiere batean, Harvard unibertsitateko ikasleen arteko harremana bultzatzeko jarri zuten martxan, baina gero konturatu ziren ibilbide luze eta aberatsa izango zuela aurretik eta poliki-poliki aurrera joan ziren.

Sareen egungo egoerari buruz hitz egiteko, Amaia Goñirekin elkartu gara Iruñeko Zaldiko Maldiko elkartean. Lanbidez komunikazio arloko teknikaria da. Internet soziala erabiliz, proiektu berriak sortzea gustatzen zaio. Berak sareetan murgilduta igarotzen du laneguna.

Aditu honek dioenez, gaur egungo nerabeak natibo digitalak dira. Hau da, jaio direnetik teknologia berriak izan dituzte bizikide. "Horrek gauza bakarra esan nahi du: teknologiari ez diotela beldurrik, berarekin batera hazi direlako eta erabiltzeko ohitura dutelako. Hala ere, garrantzitsuena gai honetan ondo heztea da; behin eta berriz errepikatu behar dugu hori". Badakite sare sozialak erabiltzen, baina ezjakintasuna dute oinarrizko balore batzuen inguruan: "Beraien identitate digitala, pribatutasuna, sexting-a, cyberbullyng-a... Horren inguruan hitz egin behar dugu beraiekin. Heziketa hori bideratu behar dugu, gazteek eta haien familiek ikasi behar baitute".

Gure aiton-amonen kasua, berriz, alderantzizkoa da, haientzat askotan teknologia arrotza delako.

Autobusaren zain gaudenean, Facebookeko gure profila begiratzea; jendez beteriko taberna batean zerbait hartzen egon, argazkia egin eta Instagramen zintzilikatzea; telefono mugikorrarekin kalean, oinez, Whatsapp edo Messenger bidez hitz egitea... Horietako egoeraren batekin identifikatuta sentitzen zara? Hala bada, agian, mendekotasuna duzu edo sare sozialetara 'engantxatuta' zaude. Azken batean, pertsonak gara, eta aurrez aurreko harremanak behar ditugu, batak ezin baitu bestea ordezkatu. Lagunekin egon beharrean eta haiekin hitz egin, abestu eta barre egin ordez, gure harremanak sare sozialetara mugatzea zer iruditzen zaizu? Eta zuk, zein sare sozial erabiltzen duzu?

Ainara Loiarte, *Ikasbil* aldizkari digitala, 2017-07-20, <http://www.ikasbil.eus> (EGOKITUA)

GALDERAK (OHARRA: Parentesi arteko zenbakiak zein lerrotan dagoen adierazten du)

- 1.- Eman hitz hauen kasua eta numeroa: *pertsonen* (4), *urtean* (5), *unibertsitateko* (8), *gazteek* (18), *lagunekin* (25). (1 puntu)
- 2.- Testuingurua kontuan hartuz hitz hauen sinonimoa eman: *asko* (6), *gero* (9), *poliki* (9), *amonen* (20), *abestu* (26). (1 puntu)
- 3.- Berridatzi esaldi hauek (1 puntu):
 - "sinesgaitza iruditzen bazaigu ere" (3) (Nahiz eta _____).
 - "familiek ikasi behar baitute" (18-19) (_____ eta).
 - "askotan teknologia arrotza delako" (20) (Zeren eta _____ -n).
 - "jendez beteriko taberna batean" (21) (_____ ... -tako _____).
 - "batak ezin baitu bestea ordezkatu" (25) (_____ ... -(e)lako _____).
4. Testuaren ulermena: Sare sozialak betidanik egon al dira hor guretzat erabilgarri? (1 puntu)
5. Testuaren ulermena: Facebook zertarako sortu zen? (1 puntu)
6. Testuaren ulermena: Azalduko zenuke zer den "natibo digitala" izatea? (1 puntu)
7. Idatzi testuari edota gaiari buruz gutxienez 150 hitz. (4 puntu).